

GORPUTZA MINTZAIDE POLITIKO GISA

-Medeak-

ZERGATIK GAUDE HEMEN?

Mahai honetan parte hartzea erabaki dugu ez proposamen politiko berri bat dugulako baizik eta ulertzen genuelako gai honekiko erantzukizun politiko bat dugula. Medeaketik azken 19 urteetan gorputzaren inguruko militantzia eta diskurtsoa landu dugu eta horregatik gaude hemen.

Argi dago ez dugula hori soilik egin eta irizpide horri jarraituz mahai guztietan egon beharko genukeela, baina mahai honetan egotea garrantzitsua zen gure ustez diskurtso honekiko oraindik hutsune nabarmena dagoelako gure testuinguruan. Hau da, gure ustez EHko mugimendu feministan gorputza ez dago erdigunean, eta oraindik jorratzeke dago. Egia da, diskurtsoetan txertatu ohi dugula, (gaur hemen ardatz propio bat da), karteletan jartzen ditugula bollera eta trans eta horrelako hitzak baina marko teoriko hau oraindik ez dago gure militantziaren erdigune eta praktiketan, eta horrek ere, seguruaski, eragina du gure militantzian parte hartzen dutenen aniztasun ezean.

Baina gurean gorputzaren hizkuntza alde batera utzi dugu, esanez bai, ardatz bezala sartu dugu jardunaldi hauetan baina ez diogu mintzaide politiko gisa duen zilegitasuna eman, ez dugu ulertu, edo ulertzeko beldur gara, nork daki! Gorputza iraultzarako hizkuntza baliagarria dela, eta honen bitartez, mugak, arauak, eginbeharrak, normatibotasuna bera apurtzeko potentzialtasun itzela dugula.

Gorputza-burua dikotomia

Badakigu gorputza esparru askotatik definitua izan dela (antropologia, medikuntza, anatomia...), guk gaur ez dugu gorputzaren definizio hori resolbituko, baina, definizio asko bezala, gorputza bera dikotomian eraikia izan da, eta guk hortik irakurriko dugu gaur.

Lehenik eta behin, definizio honi lotuta, gorputza-burua dikotomia apurtzen saiatuko gara. Argi dugu bi hauen arteko dikotomiarik ez dagoela, baina ideia hori oraindik ez dugu benetan barneratu, hau da, ez dugu gorputzu. Nolabait esateko, patriarkatuaren logikan buru eta tripen arteko botere harremanean, argi dago nork galtzen duen.

Horren lekuko da gure gaurko bilkura hau, toki ezin aproposagoa gorputzaren inguruan hitz egiteko eta gorputzetik hitz egiteko. Asteburu honetan, EH jardunaldi feminista hauetan, mugimendu feministak egunerokoan militantziaren bidez errealitatea sortzen duten gorputzak ahotsa hartzen baitute. Egunerokoan, militantziaren bidez feminismoa gorputzen dutenek, eta hanka, sabel eta erraiak jartzen dizkiotenek ahotsa hartzen dutelako. Edonola, feminismoaren hankeaz gain, arrazoiak ere hitz egingo duela espero dugu. Metafora gisa balio digu, beraz, gaurkoak, TEORIA eta PRAXIAREN arteko dikotomia ere apurtu beharrean gaudelako. Orain dela hainbat urte, Elvira Burgosek esaten zigun (seguruenik Butlerrek lehenago esanda edo agian lpatiak inkluso) TEORIA/PRAXI honen elkarlana argudiatzeko, esaten zuen, pertsona guztiak zerbait egiterakoan kontzeptuak maneiatzen ditugula. Hau da, ez gara automatak. Bestalde, hitzak eta kontzeptuak ikuspuntu aldaketa bat ere bultzatu dezaketela, hau da, eragina izan dezakete ekintzetan. Beraz, ba al dago teoria praktikarik gabe? Eta are gehiago, zer da garrantzitsuagoa? Zalantzarik gabe, bi elementu hauek gurutzatuta eta lotuta daude. Pertsona guztiak gara "pensantes y vivientes". Beraz, ez dago irreflexiorik sortzen ez duen ekintzarik, ezta ekintzarik sortzen ez duen irreflexiorik ere. Gure gaurko diskurtsora ekarrita, **ez da gorputzik gabeko errealitaterik, ezta errealitatea sortzen ez duen gorputzik.**

Imajina dezakegun bezala, oro har, eta EH gehien bat, borroka gaiekiko isileko hierarkia bat existitu izan da beti. Iraultzarako bidean gorputza buruaren euskarri soila bilakatu da maiz. **Feministontzat ordea gorputza lehen mailako tresna eta mintzaidea izan da beti.** Gorputzetik hitz egin dugu eta gorputza erabili izan dugu borrokarako, gauza asko esan ditugu gorputzarekin, sujetadoreak errez, ez depilatuz, biluztuz... gure gorputzaren jabetza berreskuratu nahian. Gaur jardunaldi hauen ardatz bat da gorputza, feministok badakigulako gorputza gure gizartearen balio sinboliko zein fisikoak sortzeko ezinbesteko tresna dela, edo bestela esanda, ez dagoela gorputz eta arrazoi horren arteko desberdintasunik, hori fikzio hutsa dela.

Orain dela 10 urte gu hona etorri ginen premisa hori praktikan jartzeko asmoarekin. Nolabait erakutsi nahi genuen txikitatik performaturiko horrek guztiak, etengabe errepikatu dugun eta performatibo bilakatu dena, **dagoeneko gorputzean dagoela inskribatuta.** Askotan esaldi hauek esaten ditugu eta ezer esango ez bagenu bezala dirudi, hau da zuek modu desberdinean kenduko dezute jertsea, (interakzioa mantendu elkarrizketan, jertsea kentzeko modua? Non ikasi dezute nola kentzen den, gorputzarekin erakusten dugunaren pedagogia. (Valeria) Horregaiti **Ikasitakoa deseraikitzeari ekin genion,** gure drag king tailerrekin, maskulinitate/feminitate gizon/emakume kategoria ertsien arteko gatazka mahai gainean jartzen saiatu ginen. Askorentzat dibertigarria, besteentzat apurtzailea eta gehienentzat kantamañas batzuk izan ginen. **Besteen begirada disziplinatorioak arauaren berri diotenez, asko ikasi genuen mugen inguruan, nolabait arau apurketa horrek ekin beharreko borrokaguneen ingurukoa iradoki ziguten.** Beraz, nik hiru

ideia horiek hartuko nituzke gorputzaren potentzialtasunaren inguruan hitz egiteko: **ludikotasuna, transgresioa eta esperpentoa!**

Esperpentoa: Denak dakigu gorputzak Foucaultek aipatzen zituen egitura disziplinatorio horien ondorio direla. Gorputz eredu bat dugula eta bestea ereduaren apurketa dela, hau da gizon eta emakume izateko modu bakarra dagoen bezala (ezkondu, umeak izan...) gorputza izateko eta hau performatzeko modu bakarra dagoela. Tokian eserita egoten ez dakitenak, altuegi hitz egiten dutenak, desberdin mugitzen direnak, gehiegi usaintzen dutenak, sensualegiak direnak, kolore desberdinak dituztenak... garrasika ari dira aldarrikatzen ez dutela erdigunean, araua den gorputz horrekin bat egiten. Eta zer egin ohi zen gehiegi hitz egiten zuten, garrasi egiten zuten edo beraien desadostasuna adierazten zuten emakumeekin? (Foucaultekin jarraituz) eroetxeak diren egitura disziplinatorietan giltzapetzen ziren. Horregatik, egokitasunetik harago doazen gorputz horiek monstrositatearen eremuan giltzapetzen ditugu, guru buruetan, kartzela edo eroetxe sinboliko horietan.

Gorputz gizenak, gorputz transak, hile gehiegi dutenak, aniztasun funtzionala dutenak... etengabeko isileko bortizkeria baten bizitzera kondenatzen ditugu. Hori horrela, gorputz horien egunerokoa gudazelai bilakatzen da, Diane Krugerrek zioen bezala "My body is a battleground". Eta argi dago monstrositatearen kartzela horrek bortizkeria eragiten diela gorputz horiei baina aldi berean, arauaren harresiaren beste aldera salto egiten dugunean askatasunerako atea ere irikitzen du. Hau da gorputz dislokatu horiek finean aldarrikapenerako hankadun dispositiboak dira. Hori horrela, gorputzaren eraikuntza logikaren lekuko diren gorputzak, hau da, izan/egon horren arteko tentsioak beraien gorputzean islatzen dituztenak, mutazioen bidez edo arautik aldentzen direlako, horiek dira feminismoaren subjektu politikoa.(hemen gure hitzaldiaren spoilerra)

(Mugimendu feministan) → Guzti honek eragiten du gure eguneroko bizitzan noski, gure imaginarioan eroetxean giltzapetu ditugun gorputzak ez dute aurkitzen hitz egiteko zilegitasunik, gure begiradarekin, (mesprezu, zentsura, kondeszendentsia...) esaten diegulako ez dutela zilegitasunik. Hori horrela, toki bat jarri dezakegu gorputz horientzat bileretan, karteletan etab. Baina begirada aldatzen ez dugun neurrian ez diegu ahotsa hartzeko tokirik uzten, beti ulertuz guk ez dugula ahotsa eman behar baizik eta esparruak sortu non ahotsa hartu daiteken. Gogoratzen dut Antonio Centenok (Foro de la Vida independenteko kideak, oso adibide ona jartzen zuen ezintasunei aplikatuta, berak azaltzen zuen autobusean igo nahian esaten ziotela no puedes subir, eta erantzuna zen, no me dejas. Bueno, ba pentsatu zenbat aniztasun arrazial, funtzional, fisiko, sexual, psikologiko dagoen hemen, eta ikusten ditugun hutsuneen ardura gureganatu beharko degu, eta pentsatu zer dago oker gure begiradan.

Orain dela 10 urte horrela begiratu gintuzuen gu, eta oraindik pixka bat... Horrelako zerbait?

Ludikotasuna eta plazerra: Lehenik eta behin, denok dakigun bezala, gure gorputzean inskribaturiko logika katolikoak plazera eta zuzentasuna, kontrako norantzan kokatu zituen. Horri gehitzen badiogu logika kapitalistaren oinarriekin nahaspilatuta dagoen produktibitate beharra, ondorioztatzen da ez dela zuzena dibertitzea, eta ez dela produktiboa. Horregatik ezin dut txertatu ludikotasuna hitzaldi honetan (ez dugu hitzaldia ematen abesten, txokolatea jaten edo txortan egiten) hori eremu pribatuari dagokiolako.

Feministok azken urteetan etengabe gabilta Emma Goldamanen esaldiak errepikatzen, ulertuz hori horrela ez bada neurri batean gure borrokaren martirrak bilakatzen garela, patriarkatuak guretzat ezarri zuen emakume sakrifikatuaren rol horrekin apurtu nahi dugu, eta ondo pasa nahi dugu ere. Ez da aurrerapauso txikia, dantza dezagun patriarkatua suntsitzen dugun bitartean. (Sorginak egin zuten, WITCH burtsan). Baina zuzentasunaren dantzatik haratako ez gara ausartu EH, ez gara sorginak egiten zuten bezala dantza orgiastiko horietan txortan ausartu. Txortan egitea ez baita politikoa, ez da produktiboa, guk orain dela 10 urte esan genuen eta esaten jarraituko dugu, elementu hau ezin da eremu pribatura baztertu, gure txortan egiteko modua, pornografia den pedagogia patriarkalak diseinatu zuen, eta hori suntsitzeko beharra dugu, gure sexu errepresentazio propioak sortuz. Kontziente izan behar dugu, gure gorputzak hainbat gaitasunekiko espropiatuak izan direla, hainbat hizkuntzekiko mutilatuak, hau da, gutako gehienak sexuarekiko agentzia ez dugula (dezutela???? Muy fuerte no?) gureganatu. Ez da harrizkoa, gure gizartean emakumeen lizuntasuna, lilitetik hasita, jatorrizko bekatua da, garbitasun, duhintasun horretik ateratzen bait gaitu automatikoki. Denak dakigu emakumeak txikitatik jasotzen ditugun irainak PUTA eta GORDA horiek, zer esan nahi duten, haragi gehiegi, lizuntasun gehiegi, gozamen gehiegi, finean, gehiegi diren emakumeei gutxiago izan daitezen eskatzen zaie. Bueno ba, ezarri diguten neurri horretatik salto egiteko momentua da, ipurzuri jarreretatik harago, erosotasunean ez baitago iraultzarik!

Transgresioa: Dagoeneko esan dudan bezala, goputzaren egokitasunarekin apurtzea oso garestia da. Azkenean gorputza bigarren mahaiako mintzaidetzat hartzen badugu ere, gure gorputzarekin hitz egitean diskurtsoarekiko inplikazioa handiagoa da. Gazteleraz esan ohi den bezala “poner la carne en el asador”, gure gorputza inplikatzen dugunean diskurtsoan, zaugarriagoak gara. Baina ezinbestean gorpuzturiko diskurtsoak behar ditugu, horiek baitira “me too” hori ahalbidetuko duten bakarrak, gorputza jartzen ez badugu, hesiaren beste aldetik begiratzen diogu aldarrikapenari, ipurzuri “condescendiente” jarreratik, tolerantziaren logika. Gu eta besteon artean dagoen hesi hori apurtzeko zikindu egin beharko gara, ez dugu besteentzat borrokatzen, guretik egiten dugu borroka, hesiaren beste aldean daudenentzat mundu posible bat

irudikatzen dugunean, gure barrenean dauden grifei entzun eta hesiaren beste aldera salto egiteko aukera ere posible egiten da.

Kontutan izan behar dugu, irakurriak garen heinean garela. Horregatik gure gorputzarekin erakusten duguna politikoa da. Valeria Flores argentinarrak, bere burua irakasle tortilera izendatzen duenak, hezkuntzaren kontestuan dio (baina mundua eskola handi bat denez) nik gaurko hitzaldirako birziklatzen dut ideia, berak dio ikastetxeetan erakusten dugunarekin irakasten dugula. Hau da, zer erakutsi/zer ezkutatu, zilegitasunaren inguruan irakasten duela, publiko/pribatuaren inguruko desberdintasuna elikatuz, nik ikastetxean bollera naizela esaten badut horren inguruko diskurtsoa sortzen dut, erreferenteak sortzen ditut etab. Baina baita nire gorputzaren performatibitatearekin berarekin, hau da emakume femenino butch bat banaiz, alu gabeko gonaduna, gizon kakatia... izateko modu desberdinak posible egiten ditut.

Eta hitzaldiaren hasieran esan dudana bezala gorputzaren existentzia hutsak errealitatea sortzen du. **Beraz gorputzaren mutazioak errealitatea aldatzen du**, gorputzaren izatetik, egonera pasatzen direnak, gorputzen inposaketaren berri diote.

Baina esperimentazioarekin ausartzen direnak militante politiko ere badira. Badaude beraien gorputzarekin gizartearen egituraketaren berri ematen dutenak, desiratu ala ez. Gorputz arrazializatuak, aniztasun funtzionala duten gorputzak... Hau da, guk ez dugu aukeratzen gure gorputzarekin egiten dugun militantzia, gure gizartean dagokigun klase soziala erabakitzen ez dugun era berean. Honekin, esan nahi dudana da, etengabe gure gorputzarekin errealitatea eraikitzen ari garekin diskurtsoarekin tentuz ibili behar dugula. Ez gara izaki likido esanahi gabeko plastilina. Hori horrela, gure zapalkuntza zein pribilegioen kontziente izan behar dugu. (Trans bezala zapalkuntza pairatzen dut, baina nire maskulinitatearen performatibitatearen ondorio boterea ere badut). Nolabait, gure gorputzek adierazten dutenaren eta beraz, irakurtzen denaren ardura hartu behar dugu.

Beti ere jakinik kategoria hauek aldakorrak direla, geografia, denbora eta orokorrean testuinguruaren arabera. Gure gorputzak adierazten duena irakurtzeko modua aldatuko da, eta horren arabera baita ere, pribilegio edo zapalkuntzak gorputzu eta birproduzituko ditugu. Horien gaineko ardura izatea ezinbestekoa da. Adibidez, hemen gizona den gorputz bat Cuban desira objektu izango da, Artzai onean gauzatzen den ezkontza batean objektua den trans gorputz bat, "cool" izango da festa transfeminista batean etab.

Honekin esan nahi duguna da irakurketa interseksional bat egin behar dela, ezin dira analisi absolutistak egin (emakume/gizon, txuri/beltz, gai/ezgai...) eta logika dikotomikoetan funtzionatu.

Zaugarritasuna / pribilegioak

Beraz, adierazten ari bagara, gorputzek bere horretan gauza asko esaten dituztela, nola erabili gorputz hauek gure borrokarako? Nola jarri “gorputza erdigunean”? Zertarako? Eta batez ere, zein prezioan?

Izan ere, gure diskurtsoak zilegiztatzeko, sarri behar izaten dugu gorputz batzuen presentzia, errealitate hori sortzeko, baina kontuan izan behar ditugu hainbat gauza:

Arauari aurre egiten dion gorputza, erresistentziarako gorputz bat da, errealitatea sortu eta eraldatzeko balio duena. Ondo da. Baina bada hori baino gehiago ere.

Arauari aurre egiten dion gorputza, zaugarritasun eta biolentzia jasotzeko puntu asko dituen gorputza ere bada. Sarri nahi ala ez. Ez da gauza bera armairutik ateratzea eskatzen diogun gorputza, edota arrazalizatua den gorputza.

Sarri, ez da aukera bat erresistentziarako gorputza izatea mundu honetan.

Beraz, kontziente izan behar dugu, “gorputza jartzearen” diskurtsoetan, ezin ditugula zaugarrienak diren gorputzak exotizatu eta erabili ere. Ezin diegula gorputz zaugarrienei gure borroken izenean inmolatzeko eskatu, batez ere, ez bagaude prest, bestelako gorputz pribilegiatu bezala ere inmolatzeko.

Beste era batera esateko, iraultza feminista ez da iraultza kolektiboa izan sekula. Beraz, hainbat gorputzek erresistentzia egiteko ez ezik, bizirauteko ere bai, mugimendu feministak espazio bizigarriak sortu behar ditu. Esanahiz beteak. Irisgarriak. Elkarren arteko errekonozimenduan oinarrituak, eta guztiok gure zaugarritasunak lehen lerroak jartzea eta biolentzien aurrean babestea ahalbidetuko diguna.

Gorputza ez jartzeak eta errepresentatzen duenaren kontzientzia eta ardura ez izateak zaugarritasuna disoziatzen du...

Eta pribilegioez kontzientzia hartzea oztopatu.

Kontuz zein gorputzi eskatzen diogun zer, eta zein gorputzetatik.

Guretik egin behar da iraultza, ez dago beste tokirik, feminismoa gutako askoren biziraupenerako segurtasun eremu bat delako, baita ulertuz arauen mugak apurtuz gure izateko aukera posible bilakatzen dela, besteentzat pentsatzen dugunean iraultza, karitatearen logika kristianoen logiketan mugitzen gara. Guretzat, agian ez beti guretik baina denentzat guretzat ere bada feminismoa gure etxea bada bertan eroso ez badugu ulertzen feminismoa gure etxe gisa ez dugu

Gainera gu bere garaian kantamañanasak izan ginan, postpornografiaren beharra jarri genuen mahi gainean, lizuntasunetik hitz egin genuen, ridikuloa egin genuen behar izan ezker eta mounstrositatearen mugan dantzatu genuen ere, baina sinistu iguzue, ez daukagu, ez indarrik, ez gogorik, ez adinik EHan honen aldeko borrokari bakardadean ekiteko, beraz, iritsi da momentua norbaitek honen lekukoa hartu dezan gurean! Kontutan izan, pornografia gorputzari zuzenean hitz egiten dion hizkuntza bat dela, hizkuntza horretan gure diskurtsoa txertatzen ez badugu ez dugu gure sexualitatearekiko ahotsik izango. Egin dezagun lan gorputz lesbianoak, gorputz transak, gorputz gizenak, aniztasun funtzionala duten edo gorputz nagusiak barneratuko dituen sexuaren diskurtso batean alegia. Kontutan izan behar dugu gorputz hauei bizitzaren atal bat lapurtu zaiela, ez baitute eredu koitozentratu heteropatriarkal honetan errepresentaziorik.

Ordezkaritza / errepresentazioa / izendapena

Feminismoaren subjektuari eutsi gabe, joan gaitezen feminismoaren gorputzari begiratzera, hain zuzen, Euskal Herriko feminismoaren gorputzari. Zein da EHko mugimendu feministaren gorputza? Nola izendatzen dugu? Zer esaten digu? Nor ordezkatzeko du? Nor errerepresentatu?

Orain arte esan dugu, gorputzek eta adierazten dutenak edukiak eta errealitatea sortzen dutela. Bestalde, badakigu jakin, izendatzen ez dena ez dela existitzen, baina badakigu baita ere, izendatze hutsak ez duela existentzia ezerezetik sortzen. Alegia, izendatzeagatik bakarrik ez dugula errealitatea sortzen.

Euskal Herriko mugimendu feministan, azken hamarkadan esango genuke, izendatzeko eta errealitate berriak sortzeko lana egin da. Horren adibide dira, manifestuetan subjektu feminista zabaltzeko asmoz, eta garen (edo izan nahi dugun?) aniztasun horren izenean egiten ditugun zerrenda amaitezinak. (Emakumeak, bollerak, beltzak, txiroak, arrazializatuak, transak, langileak, zaintzaileak, putak, aniztasun funtzionala dugunak...).

Azken bi urteetan, izendapen hau laburbiltzeko, eta berez, sakoneko eztabaida eta gatazka bat dena ebatzi eta konpontzeko, mirakuloski azaldu eta erosi dugun elementu bat sortu dugu:

izartxoak (*). Izartxoak, izendatzea luzeegi egiten zaigun hori ordezkatzeko duela ulertu daiteke. Izartxoak aniztasuna da bere horretan. Izartxoak aukera bat da. Izartxoak dena da... eta ezer ere ez.

Zerentzian jartzen da izartxoak? Beltzaren gainean? Putaren gainean? Ez, 'emakume'aren gainean jartzen da. GARATU zentro bazterra

Nor sentitzen da identifikatuta izartxoan? Nor geratzen da lasaigo izartxo hori jarrita? Ustez izartxoak ordezkatzeko duen aniztasuna, edota normalitatea errepresentatu eta diskurtsoa idazten duen emakume izartxorik gabeko, cis, hetero-feminista zuria?

Zer konpontzen du izartxoak? Zein korapilo diskurtsibo? Zein gatazka ideologiko? Zein genero-teorizazio?

Izendapenean ere, beraz, badugu hierkizazio bat. Emakume, bollerak, trans.

EHko Mugimendu Feministaren diskurtsoan, izendapenak kontsentsu bidez sartu dira (beltzak, putak, transak... *) eta demagun, izartxoak hori bera jartzen duela bere baitan. Bada, diskurtsoan badauden arren, non daude izendatzen ditugun gorputz horiek? Nor hitz egiten du izartxoaren izenean? Nolakoak da, geure errealtatean izartxoarean gorputza? Alegia, sexufobia, transfobia, kapazitismo, arrazakeria... horren ordezkatzailerak diren izartxo-gorputzak, ez al dira oraindik oso, bipedo, zuri, cis...-ak?

Hortaz, esan dugu, hitzek errealtatean izendatu/sortzen dutela; baina baita ere esan dugu, gorputzek errealtatea sortzen dutela. Zer pasatzen da bi hizkuntzek esaten dutena kontrajarria denean? Zein errealtate distortsionatzen ari gara?

Alegia, zer pasatzen da, nik, emakume zuri, cis, bipedo, bollerak, "gu emakume arrazializatu eta putok" enuntziatzen dudanean? Zein errealtate sortzen dut? Nor ordezkatu? Norbait errepresentatu?

Ordezkaritza eta errepresentazioa konfunditzen ari gara. Nik ordezkatu dezaket nigan irakurtzen ez den gorputz baten errealtatea, baina ez naiz errepresentagarria. Noraino hitz egin dezaket errepresentatzen ez dudana gorputz batetaz?

AUTOZENTSURA ez hitz egin dezaket lampedusaz, mediterraneoaz...

Uste dugu, adi egon beharreko kontu bat dela hau, alegia, diskurtsiboki zabaldu dugu subjektua, baina kupo bidez jarraitzen dugu hitzetan jarri duguna errealtate bilakatzen saiatzen. Lehenago

izendatu ditugu geurean ez dauden gorputzak, gorputz horiei espazio hauek bizigarri eta militagarri egin baino. Izendatzea ez da nahikoa izan geure errealitate militante eta soziala eraldatzeko. Eta hutsunean izendatzeak, edukia kentzea ekarri dezake. Izartxoak Schrödingerren katua izan daiteke: edukiz betea, eta aldi berean, edukirik gabea, eta geure esku dago, izartxoak zentzua izan dezan, geure gorputz politikoari benetako edukia eta errepresentazioa ematea.